

Elgoibarko liburutegiak bere XIV. lehiaketan sariak banatu ditu

Elgoibar. Elgoibarko Udal Liburutegiak Parrokiko kanpandorrea lapurtu digute izenburupean burututako XIV. Marrazki eta Idazlan lehiaketako sariak banatu zituen asteazkenean. Guztira, 462 lan aurkeztu dira Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lehiaketa honetara; 322 marrazki eta 140 idazlan, hain zuzen ere. Marrazki lehiaketako irabazleak Javier Castro (1go maila), Aitor Iriondo (2. maila), Garazi Aizpurua (3. maila) eta Nerea Martinez (4. maila) izan dira eta Idazlan lehiaketakoak Jon Etxaniz (5. maila) eta Leire Melgosa (6. maila). Iñigo Cearsolok, Kultura Saileko batzordeburuak, banatu zituen sariak.